

# Haustura hidraulikoaren bidezko gasaren aurreikuspenak, ez hain onak



Haustura hidraulikoa, Marcellus eskistoan (AEB). ARG.: AEB-KO GEOLOGIA SAILA/JABETZA PUBLIKOA.

Haustura hidraulikoa erabilia erazteko espero zuten gas-kantitatea berez ez dela hain handia erakutsi du *Nature* aldizkariak egindako azterketa batek. Hain zuzen, Estatu Batuetako energiari buruzko informazio-sailaren (EIA) aurreikuspenak eta Texasko Unibertsitatearen alderatu ditu *Nature*rek, eta ondorioztatu du EIAREN aurreikuspenak puztuta daudela.

**Natureren arabera**, Texasko Unibertsitatearen kalkulua EIAREN bano askoz ere finagoak dira, besteak beste, estrapolazioak egiteko erabili duten azalera EIAREN bano 20 aldiz txikiagoa delako. Eta emaitzak ez dira, inondik inora ere, EIAREN bezain itxaropentsuak. Adibidez, 2030 urterako EIAk aurreikusten duen gasaren erdia bano ez dela egongo kalkulatu du Texasko Unibertsitateak.

Zientzia-aldizkariak gogorarazi duenez, azken hamarkadara arte, gasa erazteko ez da asko erabili haustura hidraulikoa, gasak zuen prezioa aintzat hartuta, teknologia garestiegia baitzen. Alabaina, gas-biltegi arruntak agortu ahala, eskistoetan biltegitratutako gasera jo behar izan du energia-industriak; horrekin batera, haustura hidraulikoa hobetu eta merkatu egin da. Hala, az-

ken urteotan, haustura hidraulikoak indar handia hartu du Estatu Batuetan, eta beste herrialde batzuk ere hasiak dira teknologia hori erabiltzen lurpean duten gasa erazteko.

Gauzak horrela, Estatu Batuetako gobernuak bultzada handia eman dio gasaren industriari, eta eragin handia du herrialdearen ekonomian. Texasko Unibertsitateak egindako kalkulua ezagututa, ordea, *Nature* beldur da usteak ustel gertatuko direla, eta beste herrialde batzuek ere arrisku bera dutela du, adibidez, Poloniak.

## Kalkuluez harago

Iritzi berekoa da [Javier Arostegi Garcia](#) [EHUko Mineralogia eta Petrologia sailleko irakaslea](#). Haren esanean, datuak garbi erakusten ari dira EIAk egindako aurreikuspenak ez direla zuzenak: "Esaterako, EIAk berak Marcellus eskistoaren erreserba uste zutena bano hiru aldiz txikiagoa dela aitortu zuen 2012an". Hain zuzen, Marcellus eskisto Estatu Batuetako gas-biltegi handiena da; Virginia Mendebaldeko, Pennsylvaniako eta New Yorkeko lurraz zeharkatzen ditu, eta, egunean ateratzen duten gasa nahikoa da herrialde osoko erregai-plantan erdiak

hornitzeko. Bada, orain badirudi espero bano lehenago agortuko dela.

Arostegik ohartarazi duenez, Europako aurreikuspenen zehaztasun-eza are nabarmenagoa da. Horren adierazle da, adibidez, Norvegiak erreserbak guztiz ezabatu izana, azken datuek gasik ez zutela erakutsi baitzuten. "Frantzia ere, hasieran itxaropena zuten arren, aprobeztatzeko moduko gas gutxi dutela ondorioztatu dute berriki", gehitu du Arostegik. Eta, *Nature* bezala, Polonia aipatu du: "Hasiera batean, aurreikuspen onenak zituen herrialdea zen Europa, bano, bi urteko epean, EIAk % 20 jaitsi ditu aurreikuspenak".

Kalkuluen zehaztasunaz harago, aurreikuspenek ekonomian eta politikan duten garrantzia azpimarratu du Arostegik: "Gobernuek aurreikuspen horien arabera egiten dituzte inbertsioak eta planak. Horren ondorioz, bazterrean geratzen dira energia aurrezteko neurriak, bano, nire ustez, ikusita erregaiak agortzen ari direla, ez dugu beste biderik: energia aurreztu eta zentzuz kontsumitu behar dugu". Horrekin batera, klima-aldaketari aurre egiteko baliagarriak izango diren politika energetikoetara jotzea proposatu du Arostegik. ●